

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****NAVARIDASKO UDALA****Behin betiko onestea 2019ko ekitaldirako aurrekontu orokorra**

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, eta ez denez inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 2019ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da. Hona laburpena, kapituluka:

Gastuen egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA (€)
I. Langile gastuak	108.267,26
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	97.683,91
III. Finantza gastuak	800,00
IV. Transferentzia arruntak	36.550,00
VI. Inbertsio errealak	683.675,91
IX. Finantza-pasiboak	3.000,00
Gastuen egoera guztira	929.977,08

Diru sarreraren egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA (€)
I. Zuzeneko zergak	95.000,00
II. Zeharkako zergak	1.000,00
III. Tasak eta bestelako sarrerak	42.540,00
IV. Transferentzia arruntak	136.142,12
V. Ondare bidezko diru sarrerak	6.100,00
VII. Kapital transferentziak	649.194,96
Diru sarrerak, guztira	929.977,08

Toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 16ko 6/1989 Legeak 16. artikuluan araututakoarekin bat etorri, udalak onetsitako lanpostu zerrenda eranskin moduan argitaratzen da.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Navaridas, 2019ko maiatzaren 3a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ

Eranskina

1. Funtzionarioak

Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea

Administrazio egoera: bitartekoa

Taldea: A1

Maila: 22

Titulazioa: lizentzia edo diploma Zuzenbidean, Politika eta Administrazio Zientzietan, Ekonomia, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, edo Aktuariatza eta Finantza Zientzietan.

Hizkuntza eskakizuna: 4, derrigortasun datarik gabe.

Lantokia: Leza-Navaridas udalen elkarte, udal bakoitzerako ehuneko 50ko dedikazioarekin.

2. Lan kontratudun langile finkoak

2.1 Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea

Administrazio egoera: aktiboan

Taldea: C2

Maila: 10

Titulazioa: Eskola Graduatua, 1. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2016ko maiatzaren 1a.

Lantokia: Idazkaritza-kontuhartzailletza

2.2 Lanpostuaren izena: lan askotarako langilea-aguazila

Administrazio egoera: aktiboan

Taldea: E

Maila: 6

Titulazioa: eskola ziurtagiria

Hizkuntza eskakizuna: 1, derrigortasun datarik gabe.

Lantokia: Mantentzea